

Astelehenetik, uztailaren 27tik aurrera, Soraluzen autobusen ibilbidea aldatu egingo da

Eusko Jaurlaritzako Sozietate Publikoa den Euskotrenek, astelehenetik, uztailaren 27tik aurrera, DB06 Soraluze-Ondarroa Lurraldebus lineako autobusen ibilbidea aldatuko du Soraluzeko Errebal kalean egingo diren lan batzuk direla eta.

Lan horiek bukatu arte, autobusen ibilbidea aldatu egingo da. Hori dela eta, Soraluzen Errebal eta Baltegieta kaleetako geralekuak kendu egingo dira.

Horrez gain, burualdeko geralekua Estaziño Kalean egingo da (egun Olea Errekan kokatuta dago).

Informazio gehiago behar duten erabiltzaileek Euskotrenen telefonoa dute: 944 333 333. Horrez gain, www.euskotren.eus webgunean eta [twitter@euskotren](https://twitter.com/euskotren) webgunean ere jaso daiteke informazioa.

Igorpen data: ostirala, 2020ko uztailaren 24a



EKONOMIAREN GARAPEN
ETA AZPIEGITURA SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO E INFRAESTRUCTURAS